



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA  
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

Ebazpena, 2021eko urriaren 3koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendariarena, Irungo udal-mugarteko Olaberria ibarraren babes- eta kontserbazio-plan bereziaren irismen-dokumentua ematen duena.

## AURREKARIAK

2019ko apirilaren 8an, Irungo Udalaren eskaera bat jaso zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan, Olaberria Ibarren Babes eta Kontserbazio Plan Bereziaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua igortzeko, EAED-085 espedientearen barruan.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egin ondoren eta kontsulta horien erantzunak jaso ondoren, ingurumen-organoak, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2019ko abuztuaren 1eko Ebazpenaren bidez, Planaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismena zehaztu zuen.

Era berean, 2021eko abuztuaren 18an, Irungo Udalak berriro eskatu zion Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza honi Planaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua emateko.

Eskabide berri horrekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, egiaztatu da lehenengo aldiz aurkeztutakoaren ia berdina dela. Hori dela eta, ingurumen-organo honek erabaki du eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei ingurumen-organoak egindako kontsulten izapidea gordetzea eta espediente berri honetan sartzea, EAED-085 espedientearen barruan.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan dioenaren arabera.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasagarria sustatzea helburu hartuta.

Donostia 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz



Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua araberaz, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko eremua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilerari.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren araberaz, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatua jasotako planei buruz, eta, hain zuzen ere, Olaberria Ibarren Babes eta Kontserbazio Plan berezia plan horien artean dago.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organok ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau.

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– – Irungo Olaberria Ibarren Babes eta Kontserbazio Plan Bereziaren (aurrerantzean, Plana) irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondoreetarako bakarrik eta honako baldintza hauetan:

### 1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Olaberria ibarren Plan Berezia Irungo HAPOaren egiturazko ordenamenduaren garapenetik eratorri zen, plan orokorrak eremu horretarako ezartzen dituen zehaztapenak eta arauak osatzeko, berariazko babes-neurri egokiak ezarrita.

Planaren xede nagusia da antolamendu integral egokia zehaztea, Irungo HAPOko Olaberria ibarreko ingurumen-, paisaia-, arkitektura- eta kultura-balioak babestu, kontserbatu eta hobetuta.

Plan bereziaren helburu orokorrak:

- Ibarreko ingurumen- eta paisaia-balioak babestea, lehen sektoreari bultzada emanez.
- Kultura- eta arkitektura-ondarea babestea.
- Eraikuntza, erabilera edo jarduera ezegoki eta legez kanpokoek eragindako egoera irregularrak zuzentzea.
- Eremu degradatuak oneratzeko proposamenak egitea eta batik bat jabetza edo ekimen pribatuari eragingo dion araudia xedatzea.
- Partaidetza-prozesuan jaso diren proposamenak aztertzea, planean txertatzeko.

Helburu horiekin, eta eremuaren diagnostikoa behin eginda, planaren aurrerapenak proposamen hauek egiten ditu eremu osorako:

- Ibarreko eraikinen eta, arkeologia- eta paisaia-elementuen katalogoa osatzea, elementuok babestearren. Plan bereziaren hasierako onarpenaren agirian jasoko dira eremuko natura- eta kultura-balioak eta katalogatutako elementuak kontserbatzera eta babestera bideratutako neurriak. Neurriok zehaztapen eta araudi partikular bihurtu ahalko dira, aipatu elementuon babes-araudia edo -maila ezarritik.
- Eraikuntza, erabilera edo jarduera ezegoki eta legez kanpokoek eragindako egoera irregularrak zuzentzeko, planean zehaztuko da zein instalazio, eraikuntza, eraikin eta erabilera diren ordenamenduz kanpokoak.
- Lehen sektoreari bultzada eman, eremu degradatuak oneratzeko proposamenak egin, batik bat jabetza edo ekimen pribatuari eragingo dion araudia xedatu eta partaidetza-prozesuan jaso diren proposamenak aztertzeko, jarduera hauek proposatzen dira:
  - Donejakue bideari bultzada ematea, ibilbidea hobetuz eta errepideetatik bereiziz, bide bera direnean.
  - Segurtasuna hobetzea GI-3452 errepidean.



- Bide-sare publiko nagusia eratu eta hobetzea, oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealeku- eta ibilbide-ehuna egituratuz, eta hori interesgune turistikoekin lotuz (gotorlekuak, meatzeak, etab.)
- Eremu degradatuetako jarduerak. Hirigintza-zehaztapenak xedatuko dira arlo hauetan: erabilera nagusiak, erabilera baimenduak, eraikuntza-parametroak –beharrezkoak balira–, ingurumen-hobekuntza, etab. Nagusiki izaera pribatuko guneetan izango du eragina: Desguaces Barraka, Zapatilla Montero, Granja Avícola Zamora, Cebaderos Zamora, San Narciso, etab.
- Lehen sektoreari bultzada ematea. Lehen sektoreko jarduerak babestea eta sustatzea. Plan bereziak nekazaritza-ustategien plan estrategikoa xedatuko du.

Planaren aurrerapenak, halaber, eremu degradatu edo jarduera ezegoki gisa sailkatutako jarduketa-esparruetan esku hartzeko proposamenak hartzen ditu barnean (Desguaces Barraka, Santxotenea, Zapatilla Montero, Granja Avícola Zamora, Cebaderos Zamora, San Narciso, Urune eta Epele). Eremuetan, erabilera baimendu berriak proposatzen dira, eta planaren helburu nagusien arabera irizpideak eta helburuak (ingurumen-hobekuntza eta -oneratzea, jarduera irregularrak edo bateraezinak ordenamenduz kanpoko izendatzea, ekipamendu publikoa, etab.). Halaber, Epele eta Urune eremuetan –bi-biak sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriak dira–, berariazko sektorizazio-planak egiteko irizpideak proposatu dira.

Planak hainbat zehaztapen eta arau xedatuko ditu, HAPOkoen osagarri, eremu bakoitzeko erabilera arautzeko.

Gainera, plan bereziak ordenamenduari gainjarritako baldintza zenbait ezarriko ditu. Proposamenen artean, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- Natura-arriskuak: uholde arriskua
- Azpiegitura-berdea: lotura-igarobidea, lurrazaleko urak babesteko eremua, natura-intereseko landaredia, landaredia ondo kontserbatuta dagoen ertzak.
- Beste batzuk: kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, etab.

#### Aztertutako aukerak

Zero aukeraz edo esku ez hartzeko aukeraz gain, Planak 3 aukera ditu, eta horietako bakoitzean eremuaren antolamendu orokor bat eta identifikatutako jarduketa-esparruetan esku hartzeko proposamen batzuk proposatzen ditu.

- 0. aukera edo esku ez hartzekoa: hirigintza-antolamendua eta egungo egoera bere horretan uztea.
- 1. aukera (babeslea eta kontserbatzailea): HAPOko lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa ahalik eta gehien errespetatzen duen zonakatzea. Helburu nagusia degradatutako edo eraldatutako eremuen jatorrizko egoera berreskuratzea da. Aukerarik protekzionistena eta kontserbatzaileena da.

Urunerako eta Epeleako, ingurumena berreskuratzea eta hobetzea eta lehen sektoreko baliabideak aprobetxatzea proposatzen du.

Hasierako Dokumentu Estrategikoak egindako balorazioaren arabera, aukera hori da ibarra berreskuratzea gutxien bultzatzen duena, ez baitu gehitzen identifikatutako eremu degradatuak eta jarduketa-esparruak berroneratzea azkartuko duen babes-arau espezifikorik.

- 2. aukera (esku-hartzailea): eremu degradatuetan edo jarduera desegokiak dituztenetan haien ingurumen- eta paisaia-balioekin bateragarriak diren erabilera eta jarduera berriak ezartzen laguntzeko berriazko araudi berri bat proposatzearen emaitza da. Proposatutako erabilera berriak hirugarren sektorekoak dira nagusiki, honako modalitate hauetan: landa-inguruneko turismo-ostatua (landa-turismoa, landa-hotela, landa-etxea, landa-apartamentua), kanpamentu turistikoak, ostalaritza (jateak, tabernak, merenderoak, etab.) eta aisialdi-erabilerak (kirol-parkeak/abentura-turismoa, hipikak edo mendi-bizikletako zirkuituak edo beste batzuk). Hirugarren sektoreko erabilerak lehen mailako erabilerekin, ekipamendu-erabilerekin eta/edo etxebizitza-erabilerekin osatzen dira, baldintza egokiak dauden lekuetan; aldiz, oso degradatutako zonaren batean aldaketa-eragile gisa azpiegiturak eta zerbitzuak erabiltzea aurreikusten da.

Planean adierazitakoaren arabera, aukera horrek aisialdiko jarduerak ezartzea eta eremuko natura-balioak kontserbatzea bultzatzen du. Proposatutako erabilerak hirugarren sektorekoak, lehen sektorekoak, ekipamenduetakoak eta lehen sektoreari lotutako etxebizitzakoak dira. Oso eremu degradatuetako batean azpiegiturak eta zerbitzuak erabiltzea aurreikusten da.

- 3. aukera (tartekoa): eremuen arabera, abeltzaintza estentsiboa eta erdi-estentsiboa, profesionalak ez diren nekazaritza-ustiategiak eta baratzetan banatzea baimentzen dira, beren ezaugarrien ondorioz horretarako aukera ematen duten lurzatietan. San Narcison eta antzinako Zamorako baserrietan, eremua ingurumenaren aldetik leheneratzeko eta, lehenengo kasuan, errekastoa deskubritzeko, betelanak eta, hala badagokio, hondakin solidoen zabortegiak erabiltzeko aukera aurreikusten da, lurzatiaren orografia kontuan hartuta. Uruneko udal-lurzatia jolas- eta aisialdi-erabileretarako erabiltzea proposatzen da, Done Jakue bidea inguru horretatik igarotzen dela aprobetxatuz.

Planaren arabera, aukera horretan batez ere lehen sektoreari lotutako jarduerak ezartzea bultzatzen da, eta, osagarri gisa, eremu batzuk ingurumenaren aldetik berreskuratzeke, betegarriak/hondakindegia erabiltzea baimentzen da, lursailen orografia kontuan hartuta.

## 2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasagarritasun-irizpide aplikagarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berriaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; nagusiki, 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko ingurugiroa babesteari

buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute planaren ingurumen-ebaluazioa:

- a) Habitatak, espezieak, natura-ingurunea eta konektagarritasun ekologikoa babestea eta hobetzea, arreta berezia eskainita zuhaitz-formazio autoktonoei (1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, EAeko natura kontserbatzeko legearen testuategina onartzekoa).
- b) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- c) Ekosistemen zerbitzuak indartzea, eremu degradatuak lehengoratzeko.
- d) Arrisku naturalak gutxitzea.
- e) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- f) Mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen lehentasunezko banaketa-eremuak, interes bereziko eremuak eta gunehak babestea (Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legearen 54. artikulua).
- g) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera bultzatuz.
- h) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzoru eta materialak.

### 3. Eremu geografikoa eta ingurumen-gune garrantzitsuak

Planaren aplikazio-eremu geografikoa Olaberria ibarra da (Lapitze, Katea eta Meaka auzoak), eta 623 hektarea inguru ditu. Eremua Irungo hirigunetik eta AP-8 autobidetik hegoaldera dago.

Askotariko eremuak eta erabilerak ditu (bizitegiak, basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza, erabilera instituzional eta erabilera industrialak), eta landa-izaera du gehienbat, nekazaritza eta abeltzaintza, eta basogintza direla erabilera nagusiak. Alabaina, eremuan bada ibarraren landa-izaerarekin bat ez datozen erabilerarik. Horietako batzuk ez dira batere egokiak dauden ingurunerako, instalazioak abandonatuta daudelako, legezko kanpokoak direlako edo azpi-erabilita daudelako eta okupatzen duten lurzoru hondatuta dagoelako.

Planaren eraginpean zuzenean dagoen eremua ez da Natura 2000 sareko naturagune babestua, ezta inbentarioan sartutako gunehak babestua edo natura interesekoa ere. Bat dator, ordea, EAeko igarobide ekologikoen sareko elementu batzuekin: R21 Jaizkibel-Aiako Harria lotura-igarobidea eta Jaitzuria ibai-igarobidea, Aiako Harria eremuko eta lotura-igarobideko moteltze-eremuak eta ingurumen-oneratzea egiten ari den eremu bat. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak 2017 urtean Ekolur SLL ingurumen-aholkularitzari agindutako ikerlana aipatu behar da, "Donostialdea-Bidasoa Beherea eremuko konektagarritasun ekologikoa. Lurralde-plangintzan, unitate funtzionalaren mailan, konektagarritasun ekologikoko betekizunak txertatu ahal izateko oinarri teknikoak egitea", interesgarria gerta baitaiteke ingurumen-azterketa estrategiko egiteko, planaren xedearen estaldura handia ikusita.

Gainera, ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan izan beharko diren zenbait elementu hauteman dira eremuaren barnean. Hauek dira:

- Jaitzubia erreka eta bertara (isuri-arroak eremuaren mendebaldeko bi herenak hartzen ditu) eta Bidasoa ibaira (isuri-arroak eremuaren ekialdeko herena hartzen du) drainatzen duten beste erreka batzuk.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroan jasotako hiri-hornidurako hiru ur-hargune eta ingurumen-intereseko tarte bat.
- Eremuan, Europar Batasunaren intereseko lau habitat daude:
  - «Haltzen eta lizarren baso alubialak (91E0\*)» lehentasunezko habitata, ibai-ibilguzi lotua, 8,6 ha-ko azalerakoa.
  - «Altitude baxuetako sega-belardi elkorrak (6150)», 191 ha.
  - «Txilardi lehor europarrak (4030)», 24,5 ha.
  - «Larre mesofiloak, *Brachypodium pinnatum* espeziearekin», 3 ha.
- Halaber, aipatzekoak dira harizti azidofilo autoktonoak eta baso misto atlantikoa; guztira, 109,5 ha.
- Interes bereziko eremuak, espezie mehatxatu hauengatik: arrain hiruarantza (*Gasterosteus aculeatus*) Jaitzubia errekan, eta ferra-saguzar mediterranea (*Rhinolophus euryale*).
- Kultura-ondareko elementu katalogatuak eta Donejakue bidearen zatia.
- Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean balio estrategiko handikoen artean sartutako eremuak.

#### 4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, ohar hauek egin behar dira:

- Planaren eremuan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruen EAEko inbentarioan jasotako hamaika lurzati daude. Kode hauek dituzte: 20045-00016, 20045-00018, 20045-00019, 20045-00077, 20045-00078, 20045-00152, 20045-00164, 20045-00168, 20045-00170, 20045-00287 eta 20045-00313.
- Kaskoitegi eta Olaberri erreken behealdean uholde-arriskua dago. Olaberri erreka Uholde-arrisku Handiko Eremua da (UAHE ES017-GIP-BID-01, Irun-Hondarribia azpiarroa). Era berean, Kaskoitegi errekaaren arroan, Donostialdea-Bidasoa Beherea eremuaren Lurralde Plan Partzialak drainatze-arazoak dauden eremu bat zehazten du:

ibar nagusien alboetako azpiarroak eta goialdeko arro txikiak, jada urbanizatuta daudenak edo urbanizagarriak direnak.

- Eremua Bidasoaren estuarioan nitrato-kutsadura egon daitekeen eremuko hargunean dago (ESCA642), EAEko barne-arroetako eta itsas uretako eremu sentiberak zehazten dituen uztailaren 16ko 111/2019 Dekretuaren arabera.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren bide-azpiegituren zarata-mapekin bat etorriz, Planari dagokion eremuaren iparraldeko zatia AP-8 errepedearen afekzio akustikoko gunearen barruan dago.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Hauek dira Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txosteneko ingurumen-alderdi esanguratsuenak:

- Sustatuko den jarduketa orok bermatuko beharko du zuhaitzi autoktonoak, batik bat harizti azidofiloak eta baso misto atlantikoak, babestuta egotea. Hori horrela, bi gai berrikusi behar dira planean:
  - Proposatzen den zonifikazioak (aurkeztutako aukera guztietan) Olaberria ibarreko baso autoktono guztiak «Babes bereziko landa-izaerakoa» kategorian sartuta eduki behar lituzke, edo, gutxienez, «Landa-izaerako basoa» kategorian. Hala, Irungo HAPOan finkatutakoa baino zehatzagoa litzatekeen antolamendua ezarri ahalko litzateke.
  - Zuhaitzi autoktonoak babestuta egotea bermatzeko, baso-izaerako lurzoru publikoetako baso autoktonoak kontserbatzeko eta leheneratzeko irizpide orokorrari jarraituko zaio (planaren aurrerapenean dago jasota) titulartasun publikoko gainerako lurzoruetan.
- Aurkeztu diren aukerei dagokienez, aipatu zuzendaritzak 1. aukera hobesten du, baina ezagun ditu berau gauzatzeko zailtasunak. Horrenbestez, onartzen du eremu jakin batzuetan landa-inguruneari loturiko jarduketa ekonomikoak baimentzea, are sustatzea ere (baita nekazaritza-ustiategiak, hotel-erabilerak eta aisialdi-erabilerak). Alde horretatik, 3. aukera hobesten du 2.aren aldean.
- Zona bakoitzean proposatutako erabilerei dagokienez, Zuzendaritza kezkatuta dago Cebaderos Zamora-n eta batik bat San Nartziso gunean instalatu nahi diren zabortegiekin. Inguru horretan, erreka desestaltzea proposatzen da uholde-arriskua dela eta.

Plan bereziaren hurrengo faseetan proposatutako jarduketa-esparru bakoitzean garatuko diren jarduerak are gehiago zehaztea eskatzen da, eta ingurumena leheneratzeko jarduerak ere sartzea.

Flora aloktono inbaditzailearen presentziari buruzko diagnostikoa egin beharko da azterlanean, eta, gainera, funtsezkoa da planari flora aloktono inbaditzailea kentzeko eta kontrolatzeko protokoloa atxikitzea.



IHOBEren txostenaren arabera, 11 lurzati (txostenaren D. apartatuan aipatu dira) lurzorua kutsa dezaketen instalazioak izan dituzten edo dituzten inbentarioan sartuta daude; beraz, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Halaber, txostenaren arabera, 20045-00152 lurzatian AREAS MINERAS IRUN (CSC-13/11-NP) espedienteari loturiko jarduketak egin dira.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, IAE) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorritz, garatuko diren apartatuek eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena

- 1,1. Plangintzaren eremua eta helburuak
- 1,2. Planaren irismena, edukia eta garapena
- 1,3. Plangintza-aukerak

2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

- 2,1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
- 2,2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

3. Ingurumen-efektuak

4. Prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak.

5. Ingurumena zaintzeko programa

6. Ingurumen-laburpena

7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da IAEk hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Proposatutako planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio

kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

#### 6.1.1. Plangintzaren eremua eta helburuak

a. IAEan, laburpen txiki bat jasoko da planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, IAEak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Planaren elaborazioa egitean, ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Arauetan eta Planarekin hierarkia-loturarik ez duten bestelako planetan edo programetan ezarritako ingurumen-babeseko irizpideak, helburuak eta zehaztapenak xehatuko dira, aplikatu behar badira.

Zehazki eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- Irungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- Kantauriko Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- Kantauriko Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.

#### 6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planean hautatutako aukeraren bidez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala definituta utzi behar da, plana egin aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

b. Ingurumenean eragina izan dezaketen planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako Plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.



c. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

d. Nolanahi ere, plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

e. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketaren kokapena, *pdf* eta *shape* formatuetan.

### 6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta horietatik eratorritako Planeko proiektuen eta ekintzen arteko aldeak zehaztuko dira.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

### 6.2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

IAEak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eraginpeko eremua, antolamendu-eremu osoa izateaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzen.

IAEak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

#### 6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:



- a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota. Lurzoru motari dagokionez, dituzten ezaugarriak direla-eta gaitasun agrologiko handiko modura katalogatutako eta babestutako lurzoruen erreferentzia aipatu beharko da.
- b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak jakinaraziko dira, baleude; esaterako, ibai-ibilguak, fauna- eta flora-espezie mehatxatuen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak eta landaredia, flora eta fauna autoktonoak. Egungo elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, baita interes maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak ere, plana gauzatzean areagotu daitezkeenak.
- c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspegitik interesgarria den elementurik badagoen aztertuko da.
- d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Uholdeak izateko arriskuari, lurzoruko kutsaduratik eratorritako arriskuari, lurpeko uren kalteberatasunari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatu beharreko beste edozein ingurumen-arriskuri buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira.
- e. Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsatzaile izan daitezkeenak identifikatuko dira.
- f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria eta abar.

#### 6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

IAEak hauteman beharko du zer eremuk sor ditzakeen arazoak ingurumenaren ikuspegitik, eremu horiek proposamenen garapenarekin bateragarriak izan daitezen; horretarako, kontuan hartu beharko du ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela, besteak beste ebazpen honen lehen 3. apartatuan aipatzen direnak.

Halaber, eremuaren ingurumen-diagnostiko zehatza egin beharko da, eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak eta ingurune hauskor edo kalteberak ebaluatu ahal izateko.

### 6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da zer ondorio izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek ingurumen-kalitateko elementuen gainean, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arriku sortu edo areagotu daitekeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer-nolako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

IAEaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ondoriozko ingurumen-eraginak deskribatuko dira, apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea berariaz aipatuta.

Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-ondorio guzti-guztiak bereizi beharko dira, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzakete.

Horrela deskribatutako Planeko efektu bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Ingurumen Azterketa Estrategikoaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, eta apartatu horietan haren aipamena egin beharko da.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Xehe-xehe aztertuko da zona bakoitzean proposatutako erabilerek natura-ondarearen elementuetan izan ditzaketen inpaktuak, plan bereziaren oinarri diren ibarreko ingurumen- eta paisaia-balioen babes- eta leheneratze-irizpideak behar bezala beteko dituen erabilera-araudi bat ezartzearen.
- Kutsatuta egon daitezkeen kokaguneetan egindako indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak. Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legea betez, beharrezkoa izango da lurzorua kalitateari buruzko adierazpena izapidetzea, baldin eta lege horren 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada. Horregatik, inbentariatutako kokaleku batean edozein esku-hartze abian jarri aurretik, lurzorua kalitatearen azterketa bat egin beharko da, lurzorua kutsadurarekin lotutako arriskurik izango ez dela bermatzeko, ez langileentzat ez ezarritakoarekin bat partzelak izango duen erabilera berriko erabiltzaileentzat, eta hondakinak eta hondeatutako diren lurra egoki kudeatu beharko dira, indarrean dagoen hondakinen arloko legedia betez.
- Oro har, planaren xede nagusia eremuko ingurumen-, paisaia-, arkitektura- eta kultura-balioak babestea, kontserbatzea eta hobetzea denez, oro har, ez da inpaktu negatibo handirik espero plana ezartzeagatik. Alabaina, hautatutako diren aukerak, erabilerak eta jarduketak zein diren, esanguratsuak izan daitezkeen eraginak jasan ditzakete ebazpen honen lehenengo apartatutako 3. zenbakian zehazten diren ingurumen-gune garrantzitsuekin lotutako ingurumen-balioek.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
  - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
  - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
  - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruz. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen ondorio edo efektu horien aurreikuspenean.

c. Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-ondorioak, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

#### 6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu honetan deskribatuko da zer neurri aurreikusten diren IAEaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak eta natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

Prebentzio- eta zuzenketa-neurrien artean, jabari publiko hidraulikoari, interes hidrogeologikoko eremuei, Europar Batasunaren intereseko habitatei eta landaredia autoktonoko basoei lotutakoak xedatuko dira, baita konektagarritasun ekologikoa eustera bideratutakoak eta Nekazaritza eta Basogintzako LPSan zehaztutako balio estrategiko handiko eremuei buruzkoak ere. Horiek zehazteko, ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatu diren planetan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze

Lurralde Plan Sektoriala eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021) eta Nekazaritza eta Basogintzako LPSa.

b. Adieraziko da proposatutako neurriak planaren zein zatitan txertatu diren, eta espresuki adieraziko da planaren zein dokumentu teknikotan jaso diren.

c. Hala badagokio, prebentziorako, zuzenketarako eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

d. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

#### 6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. IAEan, ingurumena zaintzeko programa bat garatuko da, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute IAEaren 6.4 apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterketan, baita datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

#### 6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren IAEaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio esanguratsu horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Ingurumen Azterketa Estrategikoaren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

#### 6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. IAEak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

#### 7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Honako hauek izan dira:

##### Eusko Jaurlaritza:

- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetza
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.

##### Gipuzkoako Aldundia:

- Kulturako Zuzendaritza Nagusia.
- Bide Azpiegituren Saila
- Mendietako eta Natura Ingurunekeko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia.

##### Herritar interesdunak:

- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkarteak.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkarteak.



- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Espedientean jasota dagoen informazioa ikusita, interesgarria da Eusko Jaurlaritzaren Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiari eta Txingudi, Zerbitzu Mankomunitateari ere kontsulta egitea.

#### 8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organuari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu\\_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf)

Bigarrena.- Ebazpen hau Irungo Udalarari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 3a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria.

Javier Agirre Orcajo.  
(Elektronikoki stua.)